

## **AISIALDIKO ETA ASTIALDIKO LAN-TALDEAREN LEHENENGO BILERAREN AKTA**

### **BERTARATUAK:**

- 1- Gurutze Gorria Burlata → 1 pertsona.
- 2- Tantaka → 1 pertsona.
- 3- Sei Elkartea → 1 pertsona.
- 4- Dendari Izar Eskaut Taldea → 3 pertsona.
- 5- San Andrés Eskaut Taldea → 1 pertsona.
- 6- Garaiz → 1 pertsona.
- 7- CJN-NGK → 2 pertsona.

Hurrengo topaketa: otsailak 13  
 asteazkena 18:00etan Kontseiluan  
 (Yanguas eta Miranda kalea 27 bis).

### **GARAPENA:**

Topatu eta berehala, zenbait aurkezpen dinamika garatu ditugu, horiek pertsona bakoitzak topaketa honetara ekarritako itxaropenekin lotzeari ekinez. Jarraian, beste jarduera txiki baten eskutik, Lan-Talde honekin 2019an zehar lortu nahi genituzkeen helburuak adostu ditugu. Helburuak erabaki ditugunean, Taldeari dagozkion antolaketa, funtzionamendua, komunikatzeko modua adostu ditugu, hurrengo topaketan abian jarri eta berreskuratuko genituzkeen balizko jardueren, ekintzen edo ideien inguruko ideia-jasa batekin amaitzeko.

### **HELBURUAK:**

- 1- Gazte elkarteak ezagutzera ematea eta hauen gizarte onarpen handiagoa lortzea.
- 2- Elkarteen arteko lotura (Elkarteen Sarea) sendotzea eta finkatzea.
- 3- Elkartetan boluntariotzaren gestioa hobetzea.

### **TALDEAREN FUNTZIONAMENDUAREKIN LOTUTAKO ADOSTASUNAK:**

- Topaketak hilean behin ospatuko direla erabaki dugu (epe hori sortuz doazen beharrekin egokitzeko aukerarekin).
- Asistentziari dagokionez, Taldean parte hartzen duten elkarteak Topaketa bakoitzean gutxienez pertsona ordezkari batekin kontatzera konprometitzen dira. Onena izango litzateke beti berdina izatea, baina elkarte bakoitzak egokiena iruditzen zaion moduan gestionatu dezake, betiere presentzia hori bermatzea zainduz.
- Komunikazioa bertaratutako pertsonaren, elkartearen edo bien posta elektronikoaren bidez garatuko da.

- Topaketa bakoitzerako, whatsapp bidez erraz mugitzeko moduko irudi bat sortuko dugu, horrela ezagutzen ditugun beste elkarte batzuk Taldea osatzera animatu daitezten.

### **BALIZKO EKINTZEN INGURUKO IDEIA-JASA:**

- Behar komunak aurkitu, material partekatu, proiektuak egin ahal izateko elkarten plataforma bat sortu.
- Nafarroako gune ezberdinetan bistaratzeko Jardunaldi batzuk prestatu.
- Jarduera ezberdinak barne hartuz, elkarte guztietako neska-mutikoentzako egun bat antolatu.
- Elkarte guztien artean partekatzeko webgune edo drive bat sortu, materialak eta informazio didaktikoa (dinamikak, etab.) partekatzeko.
- Publizitatearekin edo antzeko zerbaitekin materialak prestatu.
- Elkarten arteko baterako jarduerak.
- Bistaratzea hedatzeko bideo bat prestatu.
- Komunikabidetarako komunikatu bat prestatu.
- Elkarteentzako asteburu bat antolatu.
- Elkarteak ezagutzera emateko eremu publikoetan jarduerak antolatu.
- Elkarteentzat tarte batekin kontatzeko egunkariekin hitz egin
- Elkarte bakoitzari besteren informazioa bere sare propioan partekatzeko aukera eman.
- Nafarroako gazte elkarten egun bat antolatu.
- Elkarten "Makro-jarduera"/Topaketa elkarte ugarirekin.

### **HURRENGO TOPAKETARAKO ZEREGINA:**

- Lan-Talde bezala martxan jartzeko ideia berririk bai?
- Hurrengo topaketan gure elkartearen presentzia bermatzea.
- Hurrengo topaketarako irudia finkatu dugunean, gure inguruko jendearekin edo ezagutzen ditugun elkarteekin partekatu.